

Zer esan nahi du PBL? - Ikasleen lana

PBL egoera batean ikasleari arazoa, egoera aurkezten zaio.

Horren aurrean ikasleek zera egin behar dute:

- egoera/arazoa azaldu
- konponbidea proposatu

Hori egiteko, galderak egin eta erantzun egin behar dute. Galderak egiteak garrantzi handia du, zeren bere ikerketaren noranzkoa zehaztuta geratuko da.

Proposatutako galderen erantzunek konklusioen bideak determinatuko dute.

Zer esan nahi du PBL? - Metodologia

Ikasleek talde txikitan egingo dute lan, ideiak eta informazioa konpartituz. Horrela garatzen diren gaitasunak ikasitako kontzeptuak bezain garrantzitsuak dira.

Irakaslea taldeak bideratuko ditu eta galdera egokiak eta metodologia ondo doala ziurtatuko du. Aldi berean behar diren baliabideak eskura jarriko ditu.

Zergatik metodo hau?

Metodo hau da arazoak-egoerak lantzeko egokien isladatzen duena.

Metodo hau erabiliz ikasleek era kritikoan lantzen dituzte gaiak: zientizaren gaitasunak eta mugak, metodo zientifikoa, dilema etikoak...

Gaur egungo egoerak eta arazoak oso konplexuak dira eta oso garrantzi handikoa den gaitasunak zera eskatzen du, egoera hori galdera esanguratsuak bihurtu eta erantzuten saiatzea.

Ikaslegoaren goi-mailako gaitasuna da galdera esanguratsuak planteiatzen jakitea.

Zergatik metodo hau?

Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia hau gero eta gehigo erabiltzen da goi-mailako ikasketetan eta metodologia honek ikasleak bere ikasketaren jabe izatea ahalbideratzen du.

Prozesua

Prozesu konplexu honen urratsak hauek dira:

Urratsa #1: Galdera egokien planteamendua. Taldeka lana eginez, irakasleak diskusioan, arazoen ulermenean, ideien konpartitzean eta plangintzan murgiltzen dira. Ideia horiek irakaslearekin kontrastatu daitezke.

Urratsa #2: Baliabideak. Taldeka lana eginez, behar diren baliabideak bilatu eta erabili egiten dira.

Urratsa #3: Galderen erantzunak. Galderak erantzuten dira.

Urratsa #4: Erantzun komuna. Diskusioaren bitartez erantzun eta informazio guztiaren sintesia.

Urratsa #5: Produktua eta ebaluazioa. Aurkezpena ekoiztu eta prozesu osoa ebaluatu

Egoeraren analisia

Dioxinak substantzia problematikoak dira.

Substantzia hauek

- gizakiok sortzen ditugu,
- eragina dute gure osasunean eta
- agian honen aurrean posizionatzea merezi du.

Egin ezazu analisi oso bat eta konklusioak komunikatu.